

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako museo nagusiek "noche en blanco" izeneko gaueko ekitaldi bat eta Museoen Nazioarteko Eguna ospatzeko hainbat jarduera antolatu dituzte

Maiatzaren 14an "noche en blanco" ekitaldia egingo dute eta asteazkenean, maiatzaren 18an, Museoen Nazioarteko Eguna ospatuko dute

Viernes, 06 de mayo de 2011

Nafarroako Gobernuak, Kultura eta Turismo Departamentuaren bidez eta Nafarroako Museoen Sistema osatzen dutenekin elkarlanean, datozen egunetarako hainbat jarduera antolatuko ditu: maiatzaren 14an, larunbatean, "Museoen Gaua" egingo dute eta asteazkenean, maiatzaren 18an, Museoen Nazioarteko Eguna ospatuko dute.

Hala adostu zuten, atzo, Nafarroako Museoko, Karlismoaren Museoko, Oteiza Museoko, Gustavo de Maeztu Museoko eta Muñoz Sola Museoko ordezkariak aipatutako departamentuan egin zuten bileran.



Nafarroako Museoen Sistema osatzen duten museoek "noche en blanco" izeneko ekitaldia egingo dute maiatzaren 14an eta asteazkenean, maiatzaren 18an, Museoen Nazioarteko Eguna ospatuko dute

Maiatzaren 14an, larunbatean, Nafarroako Museoa eta Karlismoaren Museoa gaueko hamabiak arte egongo dira zabalik. Programaturiko ekitaldien artean, Nafarroako Museoan egingo den dramatizazio poetikoa, Nafar Ateneoarekin elkarlanean, eta Karlismoaren Museoan egingo den kontzertua dira nabarmenenak.

Maiatzaren 18an, asteazkenean, Nafarroako Museoan "Zaragüeta fotógrafos" erakusketari buruzko hitzaldia emango du erakusketaren komisarioak, Francisco Javier Zubiaurrek. Arratsaldean, Karlismoaren Museoan haurrentzako tailerrak egingo dituzte euskaraz eta gaztelaniaz eta, ondoren, txokolate beroa emango dute. Bestalde, Nafarroako Julio Caro Baroja Museo Etnologikoan museoa bera ikusteko bisita gidatuak ere

egingo dituzte.

Gainera, Vianako Printzea Erakundea - Kultura eta Turismo Departamentuak Nafarroako Museoen Sistemako gainerako museoetara "Museoen Gauean" museo bakoitzaren eraikinean egingo den musika emanaldia eskaini die.